

A photograph of a large, ancient tree with thick, gnarled branches covered in moss. The tree is set against a backdrop of a stone archway, possibly a bridge or a tunnel entrance. The scene is lush with greenery, including ferns and other plants. The lighting is bright, suggesting a sunny day. The overall atmosphere is serene and natural.

JEURT!

Bertoko errebisti - 7. zk. 2002ko zehendia

ESKUEZ GUTXITAN LEY... GURE "JOXE" NARRI HAKINARRA JOLYN 20 BEREN BAROTZIAK SALTZEKO ASKOTZ.



ENE BARRA! JOXE... ASPAGIKO? ZER EGITEAN DIRIK HEMENIK?

JOXE EZ! "JOX" ORAIN "JOX" HESIDEZ!



NAH! PAKATIK BA



ATZO EGORRI NINTZUAN AMERIKETATIK ETA AUSALEKO PARTEZ EGUENETAKO PLAZA IKUSTEN NABIL GURE HERRIARRA



AMERIKETAN EU? ETA ZEH MOZKOD FARRJETAN IBILI NAIZ BAP

KIKI KIKI KIKI



BAGATIK BA... BIDERATZI URTEN BOSTA ASKO ZINTZKO ASTIXE IZAN SUAT ETA NOR IBILI NOK BAJETIK BESTERA SUATXINTZOMEN... KALIFORNIA... OREJOMINEN...

PILOZU?



ORAIN... "GOGRAHIXE" BE ONDO EZAGUTUKO DIRIK BA!



AKABO BA... DIRIXE BAIETZ? HAY BE GITXIEHEZ PARE BAI ALDIZ EDOAGA NAIZAK ETA!

© 1999

J. Karmelo Goikoletxe

p
k
a
i
z
h
k

u
f
r
n
e
e
g

Aurkibidea

Komikia	2
Editoriala	3
Ingurugiroaz	4
Deiturak	5
Hizkuntzaz	6
Elkartzeta	8
Eritzia	10
Ipuina	11
Elkartzeta	12
Kirolak	14
Umeek dinoskuena	16
Zaharrek dinoskuena	17
Baserriaz	18
Geu gaitara	19

© JEURT ALDIZKARIA

jeurt@enskakemia.org

Azala: Janas Urretz

Kontakua: Puskal Elezuko Zuhaitzen Gida

Itururategia: Ilika-Mika

Makentzia: Ilika-Mika

Lea Ibarzoki Udalen Mankomunazgoan dago laguntzaz



Agostin Jorret / EITB

Lea gancan zubia

Urcola auzoa, Asteasu

Editoriala

Denbora luzeegia pasatu arren azkenengo Jeurt kaleratu genduanetik, bagatoz barriro, esan behar da, inoiz bere ez dogula bortan behera izteko pentsamenturik erabili, baina arazoak arazo, ez dogula lortzen izan egin beharrekoak egiterik.

Taldea barriztatu, ugaritu eta gaztetu egin da; ea bada gaztelasunaren indarragaz oraingo etapa honetan adoretzu jokalzen dogun eta sarriago kaleratzea lortzen dogun.

Beti legez, geure eskualdeko kontuak aurkitu ahal izango dituzu bertan eta espero dogu, gustora irakurteko moduko aldizkaria egiten jarraitzea.


Jeurteko kideak

Kostaldeko txokoak be badauke izenik

Mendi tontor guztiek euren izena dauken legez itsas-haitz gehienak be badauke euren. Kokatuta dagoen lekutiak oinuetara izen honek ez daite bako haundirik izango, agerri be ez duzelako mon egingo, baina euren inguruan, izen da guzti, ezagunak izango dira. Batzuek, bertan arrain mota bat agerian ageritzen dalako, beste batzuk halako edo honako itxura

orografikoa daukelako, beste batzuk inguruko zuhaitz edo antzerako gauza berezia daukelako.

Gaur egun edonon iristen da haitzetara, baina lehenago, zapatu domeketarako iheslode ikaragarria zan gehien bat inguruko baserrietako jendakontzako, lapak eta mangelinoak bati. Injarian edo subolan egiteko.



P l a i z h k u n o e s e

AGIRRE - AGERRE

AGIRRE edota **AGERRE** **AGER-** eta **AGIR-**etik dator eta "ageria", "begibistakoa", "aunkitua" edo antzeko zuzen esan nahi dabe.

Beste abizen aski sartzeko helburu izan da. Iparragirre, Agneregomezkorta, Egoagirre, Aginegabiria, eta abar. Hogeita hamahiru armari ezberdin agertzen jasuz eta mugurukoak azaldutako diru guztiak:

Busturikoa: Urte kolorea, handa gorria; dragoi berdeak; orso beltzak

Gernikakoa: Hiru zatitu. Lehenengoa urte kolorekoa; arte berdea; azpi berdea; orseme beltza

Bigurena gorria, urrezko gazteak; armadun zidurreko besua adolagaz, urte koloreko burdinsarea. Hirugarrena zidurrekoa, munta gorria, bilutz antzeko berdeak.

Ispasterkoa: Urtea, arbola berdea; urrezko kotua

Markinakoa: Gorria urrezko anu naldetan


Gernikako besteak: Erdiko kolorea ziderra; arbola berdea; orso beltza; erdiko marra berdea; zidurreko zurra; legal gorria; urrezko aspak.



BUSTURI



GERNIKA



ISPASTER



MARKINA



GERNIKA

Ehun eta hamazortzi Agirre jatorriko Auzoaren bi liburuan hainba dantatiki ospetsuenak ekarri deusneuz horra

JOSE MARI AGIRRE "IZARDI" euskeraz idatzi dabien poetarik onena dala dirioe adituek.

Zarautzen jaio zan 1896. urtean eta zortizurez 36 urte zingia hil zan.

Idatzi zituen liburuen artean honesez dagoz "Otariko hitza", "Parisko Txularre", "Agar", "Utegiroak", "Ehotz begietan", "Itz Lauz", "Umezurtz Olerkiak", eta abar.

LOPE DE AGIRRE Ameriketara ibili zan konkistatzaile eta errebeldea. Oñazarra 1511-15 inguruan jaioa eta Venezuelara 1561ean hila.

Bere alabugaz ibili zan Venezuela eta Peru aldean eta azkenean be berak hil eban, hainbeste marte eban alaba, pertsona gantzoe eskutan jaioi ez zedun.

Tintz hil eban Lope de Agirre eta bere gorpua zaitu eta Venezuelako hiri ezberdinetan banatu eban

TXOMIN AGIRRE (1864-1920) olerkariar abade eta idazlea, buskaltzazandakoa kidea izan zana. Gazteak hil auzen, hainbat eta hainbat eleberr, ipuin, poesia, itzulpen, kondakia, eta artikulu idatzi zituen

Honetariko botzuk: "Añamendike lorea", "Kresala", "Garaia", "Larraldeko lorea", "Ondarrak" eta "Ni eta ai".

JOSE ANTONIO AGIRRE LEKUBE abokatu eta politikako burkatarra. 1904an Bilbon jaioa. 1931n Getxoko alkate izendata eban eta II. Errepublikan proklamatu zenean diputatu aukeratao izan zan.

Sasoi hartako EAJko pertsonarik nabarmenena zanez, 1932an barrero be Bizkaiko diputatu aukeratu eban

Errepublikako azken hauteskundeetan, 1936an, hiru garronez aukeratzea dabe eta gertan sartuta, urtaren leste, Autonomia Estatutuak aprobatu eta gero, alkateek Gernikan batzartuta, Lehendakari izendatzen dabe.

Denbora labur horretan "Ikastola Nagusi" edo Euskal Unibertsitatea sortu eban eta Euskal Dirua be bai

Bilho jaioi zeneak Paris,artzelone eta Belgikan bizi izan zan bere kideekin. Gero, Munduko II. Gerraan Ameriketara alde egin behar izan eban, barrero be Parisera itzultzeko. Euskal Gobernuako Lehendakari-tzaan jarraitzeko.

Bertan hil zan 1960an eta Lapurdira ekarri eban, Donibane Lohizuneko kanposantura.

BASERRIKO HERRAMINTTAK

Gaur egungo aurrerapen teknologikoak direla eta, inguruko baserrietan ikusi dugu zelan aldatuz joan diren gauzak. Zelan behia eta arca traktoreak ordezkatu dituen; zelan sega eta eskuarearen ordezkariak erabilten doguzan.

Aurrerapenak-aurrerapen, gure aitita-amumak egunero erabilten zituen lanabesak museoetarako bidean dagoz.

Hori ekiditu ezin badugu ere, behintzat ez daiguzan herramintta honek ahaztu, gure kulturaren ondare dira eta.

LAXAK*: Lurrari buelta emateko erabilten zan tresna. Esku banatan hartu, gora ultiatu eta goitik behera sartukeran, norberagana tiratu eta sokal zatiak urteten eben.

ESIDXE*: Soluetako lurrak leuntzeko erabilten zan tresna hau. Trentza baten antzera, egur buri heste lau bat lotuta (batean goitik eta hurrengo behetik) eta atzean kurten bat ebala. Beldian kateak lotzeko "aro" batekin. Beheri lotu eta atzean pisua ipiniaz erabilten zan tramankulu hau.

TXERRENA: Arto bilateak jomatzeko erabilten eben gehien bat. Beki edo beste animalia-
ren batek eraman eban eta 5 hortzekoa edo 7koa izaten zan

"FRANTZESARIE"* edo **"ARÉ TXIKIDXE"*** 8, 10 edo 12 hortzetako eguneko "arinaso" bat. Sulo edo hortuetan are nagusia pasatu ostean lurra erabat biraintzeko erabilten ebena.

JORRAIDXE*: Atxur mota bat da. Atxur txikia haino zertsobait haundiagoa.

KORAIÑE: Sega mota bat da. Basoan erabilten zan eta besteak baino txikiagoa eta motzagoa edo laburragoa da.


ADARRA: Zorroztarria gordeteko erabilten dan "potoa" da. Aintzina idi adarra erabilten eben soilik, egun, baserriar zaharrei besterik ez jake ikusten adarra gorman lotuta

TXARDANGUE: Bost hortza ere ditzen jako. Bere izerak diñon lez bost hortz ditu eta bost hortz horrek okerrak izateaz gain bat egin da dagoz, kirtena erilian daukalarik. Bedarra haldi gainera jasuteko, sinautra atarateko... erabilten da egun oraindik.


TRAKULUE: Basoan piñuak jaisteko erabilten zan hunda da trakulue. Bere berezitasuna, azterik bakoa izaten da. Hau da, erroberen parean amaitzen zan burdia da honaka hau. Atzerik ez eukanez, piñuen puntak errobera gainera altzatu eta bertan lotzen ziren, behiek gitxiago sultitzeko.

* Aitzasa testuetako iruzkin-piñak dira. 1. Jai


TRAKULU



ESIDXE




LAIKAK



SORROSTARRIDXE



TXARDANGU



NATURAREN MOLDATZAILEA

Jose Angel Uberuaga

ESKULTORREA

Zelan hasi zinen eskulturagintzan?

—Ezango nenke beti eman dudala baturan hori, ez behar bada eskultura zuzenean, baina bai artea. Gainera hainbeste urtean pelotaka ibili naz eta museoak gehienak ikusi dudaz, bai Nueva York-en, Mexikon, Floridan eta leku askotan.

Pelotan greba luzea he eduki genduan eta denbora hori aprobetxatu nebun arte munduan gehiago sartzeko. Nueva York-en kuhatar batez ikasten ibili nintzen. Julio Gonzalez bere, eta Mexikon Paul Kumpenyes polakoagaz. Batak eskultoreak baita baita oso ezhandinak he

Ikasketarik edo egin behar da horretarako?

Estudiarik edukitzea beti da ona, baita Euskal Herriko eskultore onenak Arte Ederrak ikasi bakoak dira. Bestelako estadiok bai arteetan ikusitakoak, baina ez zehatz-zehatzak. Txillida eta Harro's esaterako autodidaktak dira. Batez he arteak barretik antetan dabelako.

Ideiak nondik ateratzen dozuz?

Ideiak beti Jatorri kanpotik. Ikusten duzuna baturan sentitu ondoren kanporatzen da berrit.

Zelintzuk material erabiltzen dozuz gehien bat?

Edozer. Basorri batea bizi naze-nez, eta inguruan harri eta egurra daukaguzenez, batez he horretarak erabiltzen dudaz.



Burdinea he sarri erabiltzen dut eta baita bestelako materialak he plastikoa, metelak... Baina gehiago identifikatzen naz harri, egur eta burdinagaz.

Bizimodua eskulturagintzatik atara zinke ala ez?

Uuh. Galderzen deustazun hon oso gaxa da. Garzautzitsuen

harruan daukazu hori azaleratzea da batzuek ber-
hearen bitartez, beste batzuek musika edo pintara
ren bidez, eta besteok zerbiziti forma emonez.
Eskulturatik bizitzea oso gaitza da lehen esan dodan
moduan baina nik horrela kanporatzen dut harruan
slaramaklano.

Erakusketarik egiten dozu?

Datuak egin dudaz, bai. Nueva York eta inguruetan
izan naz neure lanak erakusten. Horrek ez dau esan
gura ospetsua nazanik, izan ere, edonork egin bai-
leike erakusketa bat Nueva York-en, Mexikon eta
bertan Euskal Herrian ere ikus, diru nire arteanik.
Niretzat garrantzitsuena ez da zeinbat erakusketa
egiten diran edo non egiten diran, inportanteena
jendeak modu batera edo bestera eskultorea eta
bere lanak ezagutzea da.

Jendeak ulertzen ditu zure eskulturak?

Nare eskultura lanak nahiko abstraktoak dira, beraz,
ez da erraza eskultoreak interpretatu nahi izan
darama ulertzea. Interpretazio aski eta ezberdinak
izan ditzuke lan batek eta hart aberasgarria da.
Oraindik jendea lotsam egiten da eruzia ematen eta
hau zuzen hori da artistari gehien interesatzen
zainna.

Oiz mediant be dolmenen ipini dozu, ezta?

Bai. Neure omenakdia artzaitz eta bertsozarien
Aspaldiko idia bat.

Urte aska egin dudaz Euskal Herriak kanpo eta
gure Herria beti eraman dut bihotzean.


Kontua zera da, betiko bidetan bultzatuko gaituen
ezpirituairen sorketak tarteko iraden salatzen, baina
arudimen islapen berrien bidez.

Euskalduna estilo bat da eta egiten duen guztiak
estilo bera eta pertsonala erakusten dau.

Berezengain ahaztu edo ezaharzen duen edozerik
ahaldu egiten dan estiloa. Gizaki bezala, bere estil-
ua ez ezagutzen, denarengandik aldaratu egiten
da.

Estilo hau, dolmen edo harrispilan abiatzen da.
Ezerezaren jabeakuntzaz eta, bitartekotzat, artearen
belarria ezinbestekoa dau. Gizaki hau gizaseme oso
eta aska da. Amets egitera itzuli behar gara, hau
iragan misterioz betetakoa duen Gure Herria berri-
z indikatuzera.

Euskal kultura, egiazko kultura tradiziozkoa da,
izan. Harrispilarengandikoa, eta herri kulturala
bezala.



Zure lanetatik zein dozu gustokoen?

23 pieza daukazan lan bat danka. Behar bada herri-
xe dut gustokoen. Lan honek istorio luzea dauka.

Mexikon Txaman hatzuen batzar batera joateko
askera eduki neban eta euren alkarmizketa txiki bat
egin neutsen. Handik atara neban eskultura hori.
Haritzezko 23 pieza dira eta bakoitzak forma bat
dauka. Urtebete pasatu behar izan neban lana
bukatzeko.

Non ikusi geinle zure lanen bat?

Gernikako museuan badago bat, Gernikan bertan
ere. Lonja batean badaukadaz batzuk eta nire etxean
be badagoz ikusteko eran.

Etorkezinerako proiekturik badaukazu?

Momentu honetan, hain zuzen buru belarri sartuta
nahi proiektu batean. Nekazal turismoko zentral
bat jarriko dabe Donostiako Kurtsailean eta proiek-
tu bat aurkeztu neban hiru aldundi eta gobernuan,
eta baietza emon eusteen. Bulego baterako altzaririk
diru baina ez etanulakoa. Eskultura itxura izango
dabe eta horretan nahi.

Lagun honeei pare bat galdera egin deitseezuz inkesta modura. Hemen dozuaz galdera eta euren erantzunak:

-IRAKURTZEN DOZU ERREBISTARIK? ZEIN ETA ZENBATERO?

-EZAGUTZEN DOZU JEURI?



MIREN BARRUTIA

34 urte, Gizaburuaga

Noizbelaika. Vital. Cuerpo mente. Integral eta etxe apainketan buruzkoren hat irakurtzen dut bai. Batzutan errebista aska erosi eta irakurtzen dut eta bestetan agian bapez. Horrez gain. Egunkariako harpidedunak gara eta luze ere irakurtzen dut.

—Jeuri ezagutzen dut. bai. Oso interesgarria iruditzen jata herri aldizkari bat ataratzea bertoko kontuekin.

ASIER BELAUSTEGI

27 urte, Munitibar

—Normalin ez dauket denbora askorik, lanak kentzen deustelako. baina ahal dotenin. nahixau dot egunkarixe aldizkarixek bano. Mus-kin inguruko kontuk irakurtzen ditud batzue, kultura musikala zabalteko, adibidez "Guitara Total".

—Txutsamutsuka ezagutzen dot. baina Jeuri' ez.



IÑAKI ARANZETA

34 urte, Mendexa

—Errebistarik? Ez. Egunkariak. "Gara" gelueti bat.

—Bai.

—Ezer kanbijau... Ez nuz akorletan. denbora usko da arkena ledu nehe-na. Iguar urte bi her ze lehenengo urtero edo sartatehen. Ez dauket akordun.

PEDRO MARI URBERUAGA

48 urte, Aulesti

—Bai, egunero leiduntan dot periodikua, Gara.

Jeuri be leiduntan dot urtetan dauanean. bertoko kontuak eta ekarten ditu eta.



F
k
a
i
h
k

u
fi

n
e
e
g
i

Baltza, Bera!

Peruk eta Marixek erabagi eben egun haretan behar asko egitea. Sagardoa amaituta euken eta ogirik be ez euken bako. Peruk egin eban sagardoa eta sartu eban barrikan. Baina gero harek ezan eban inondik inora topatu kortsotxu bat eta egiten eban: "Ene, nik orain hau zelan zarratuko ete dot ba? kortsotxu bat be ezin dot topatu kortsotzat, ezabez, eta zelan baina, zelan?"

Eta txakurra ebilen han, hara eta hona, eta orduntxe erabagi eban ha ze: "Ene, honexen duztana sarteko deusat nik kortsotzat. Elorri hona. Baltza, etorri hona, ia! Etorri hona!" Eroan eban bertara eta sartu esan huztana eta han agertu zan ha tapatura.

Eta Marixek egin zitun bere ogiok eta han ebilen zapi zuri garbi eder haten siketzeko ipmiten. Eta esan eutsan Peruri:

Peru, ia, neuk esan ezatut etxatzu zuri ezer alordetan, oilo tokira be osteratxu bat egie nozik behinean, ze lehen be arrauak sarri eroan deuskuz guri, ondo dakizun moduan, oiloak eta. Ia! Egin osteratxu bat.

Bai, Marix, joan behar dot ha ia ze pasetan dan haretan.

Eta joan zan Peru. Eta orduntxe heltzea bano ez eban egin, joan arrauak hartu curak enkenik oilo baltzik ederrena eta aurretan gora eroan eban. Eta Peruk oilo baltzari deitzen eutsan:

Baltza, behera! Baltza, behera!

Eta txakurrak eukalez Baltza izerra, arin berari deitzen eutsalakoan... oilotokira. Ene! Txakur hori joan zanean oilotokira, agur ha sagardoa. Jausia zan dana behera. Marixek lan zahalduta eukazan ogiak siketzeko be danak alperrik galdu zirean, eta ha zan ba behar modua! Eta etorri zan Peru harura eta esan eutsan:

Marix! Ointxe arrauak eroan deusku geure oilo baltzik ederrena. Ai, ai, ha izan da ba! Deitu deusat, baina alperrik!

Baina zer jaso da haren Peru? Zer jaso da? Sagardoak urtenda, ogi guztiak alperrik galdu jataz eta arrauak eroan dabela oiloa... zertzuk dirustazuz?

Bai ha. Nik Baltza, behera! Baltza, behera! Deitzen izan deusat oilo baltzari eta txakurrak, berari deitzen deusalakoan, etorri da oilotokira eta eduki dudalez kortsotzat barrikauri ipinita, ba, alor ba, urten dau sagardoak

Ai, ba, hau da behar modua! Oilo baltz ederra eroan dauka arrauak. Lanabost egunerako ogi ederrak eginda eduki eta alperrik galdu jakuz, urte guztirako sagardoa eginda hor eduki dogu, ha be bai... hau da ba eguna, hau da ba eguna! Nahibagez betea! Gure beharrok ha ze alperrik izan diran gaur, eta dana zeure ganorabakotasunagailik. Baina, Peru noiz izango ete zara ba gizon? Besteen antzekua? Besteen antzekua esan deusat ba!



Baltza, Bera!



IBAN, TXIRRINDULARI GAZTEAREN AGERPENA

Iban Uberuaga, 22 urteko txirrindulari Gerrikaiztarra aurten hasi da afizionatu mailan beren lehenengo garaipenak lortzen. Alfus-Tedes Gernikako taldean korritzen dau 2000 urtea ezkeroztik. Beragaz egon gara...

Noiz eta zergatik hasi zinen txirrindularitzan?

Jubeniletan hasi nintzen mountain bike denbora pasa modun eta zozter ezberdina probetiauren bidetara pasatu nintzen. Asko kostatu zuten aurrerari baretik bestera.

Zelakoak izen ziren zure lehenengo urteak afizionatuetan?

Talde txiki baten hasi nintzen eta ez geunkin aparteko helbururik. Hontik aurrera segitzeko Etxaberi ekipora joateko aukera eduki neban. Hemen, talde lana izan zan lehenengo urte bietan eta arazo fisiko batzuk be eduki nebazan.

Inoiz pentsatu zenuan bizikletan iztea?

Bai. Bataka-ko lehenengo urteak nahiko gozorrak izan ziren eta direktoriagaz be ez uteritu batzuk eduki nebazan. Hies be bai, arazo fisikoengatik.

Zeritzuk izan dira aurten zure lortpenak?

Dizkaiko Biran bider egon nintzen eta horrek kristau ilusimua egin eusten. Baina taldeak ez eban konfiantzarik erakutsi eta beste aukera batzuk jokatu genduzen.

Avila ko itzulia hirugarren postuan amaitu neban eta mendiko eta turteko helmugan mailotak irabazi nebazan. Hlau izen zan teupora dako momenturik onena.

Euskaldun Sarian karrera bi irabazi dodaz: Arbeiza eta Elizondon, Beste lasterketa bat Medina de Pomarren (Burgos) eta postuei dagokionez 11 bider sailkatu naz lehenengo hosten



artean. Euskaldun Sarian hirugarren toa sailkapenean.


Zein izan da garaipen guztietatik pozgarriena?

Elizondokoa, hogeitamar kilometro egin nebazalako bakarik aldjapan eraso egin da gero

P
k
a
i
z
h
k

u
fr

n
e
e
e
e



Garaipen hauek pelotariaren errespetua lortzeko balio ahal izen deusue?

Bai, hortik aurrera hijituaigun egin naz eta gataxe egin jate irabaztea.

Egia da Birak esaten dabena besteke garrantzia daukala afizionatu mailan?

Inpresionatu egiten dau zori bai komunikabide mailan dabena. Lider paratu rintzenan hastarte susto hartu nehan kait hese karama eta entrenistaguz.

Profesionalekin be korridu dozu aurren ezta?

Bai, Laudion eta "Clásica de los puertos" Madrilan. Laudion ez nintzen baina ondo topatu, suete eskasa eduki neban pit-taxatuk etañ, zirela eta. Baina Madriletik gustorago etorri naz, goitri buru apur bat agerri gendulako.

Zer sentitzen da profesionalan onduen karrizterakotan?

Husieran txakatu egiten dau, ilusioñe errotan dan jende ezagunaz kontitzeak. Baina karre-

ta hasten danean alaztu egiten zara gauza honetat.

Asko inpresionatu nau, laien errotan dan abiaduraak.

Zeintzuk dira aurtengo eta datorren urteko zure helburuk?

Beste karreeran bat irabazi, Euskaldun-en posturen bat aurreratu eta Gogorriko itzulian aurrean ibiltia.

Datorren urtean, begira, aurtengoa nahiko ez bada izen, zozter gehiago egin eta profesionalen toki bat eskatu.

Kimeriz Zuazo
Arkaitz Zabalbeaskoa

KATE MOTXIN

- 1- Herri bat?
Iparraldeko edozein.
- 2- Jateko bat?
Tostadak mermeladiaz.
- 3- Edari gustokoena?
Kafesnea.
- 4- Juergarako leku bat?
Goguz edozein.
- 5- Eta juergan edateko?
Ginkasa.
- 6- Kolore bat?
Gorrixe.
- 7- Txirrindulari bat?
Vandenbrouke.
- 8- Irabazteko karrera bat?
Memorial Balenziaga.
- 9- Hobby bat?
Aspaldion internet-en ibiltie.
- 10- Amets bat?
Bizikleti izten dotenin, dana emon dotenan lasaitasune edukittie.

2002 PALMARESA

1goa II trofeo concejo de Arbeiza.

1goa LXVII.Vuelta al Baztan

1goa XXIV Dorletako Ama.

1goa XXVII Trofeo Ciudad Medina de Pomar

1goa 4 etapa Volta A Galicia

2.a General Torneo EUSKALDUN

BESTEAK:

3.a Vuelta Avila (Mendiko Saria)

6.a Goiern.

6.a Volta a Galicia (Mendiko saria)

9.a Bizkaiko Bira (3.etapan Lider)

25 ariz lehenengo bost sail katuetan

*Tomas Oñaederra,
72 urtekoa, Bedarona
jaioa eta joan dan 36
urtetik hona Mendexan
bizi danak eduki dau
zerikusirik inguruko
bizikleta munduan*

TOMAS OÑAEDERRA



Gazte gaztetatik ufizio handia eukan, gainera bere anaia nagusia ere, hogei urte gehiagukoa, bizikleta munduko profesional 1. Kategorian euen. Berak diru honek ez ebala indartu bere gogo hori, anaia honek baserrian geratzeko gehiago animatzen eban. Bana abata handiago zen lez...

Bere bizikleta munduko haserak, bertan inguruan egin zituen. Berritxu, Bedarona, Ondarra, Ipazter, ... karrerarik gehienak irabaziz. Sasu hortan Bizkaí inguruko beste karrera askotan be, astebururo parte hartzen eban.

17 urte ebazala «Campeonato de Gipuzkoa» zelako karreran parte hartu, Gaiñarain lagun ebala, eta zazpigarten sartu zan, sprint

bategaz. Orduntxe animatu zan benetan. Geroago Burgos, Santander eta Baiona aldean be karrera askotan hartu eban parte eta irabazi be asko. Karrera hauek bertokuk bano luzeagok ziren eta baita ere gogorragoak klima aldetik. Era berean gogortasun horrek bere satisfazioa jurlatu egiten eban.

Gero etorri ziren «Vuelta a España»k, 1955ean lehenengoa, eta bigarrena 1957an, honetan hobeto preparatu joan zan, bai edadeak eta bai esperientziak emoten dabon zurtasunagaz. Buelta hau ezin izan eban amaitu,

«colitis» gogor batek hartu ebalako Santander bueltan. 1958 urtean erretiratu egin zuen.

Elkarrizketa guztian zehar bere esakeretako bat hauxe izan da eta sarritan errepetitu dau. «Gure ziklismoa ez da kontatekoa»

Baina gure ustez hai kontratekuk dizela eurarak edukitzen ebezan ezin guztiak. Ez enkan norik zuzendurik, ez jau kontuan, ez teknikakoan, ez ekipoirik. Euren kontura gehienetan korriduko eban bizikletetan mogitu behar izaten ziran herri batetik bestera. Hau da Burgosekko karrera baten parte hartze ko, egun bi arinago soltatu behar ziran etxetik, bidetan. Pankorbon hau zuzen ur trago eder bat eginik. Gero diru kontua dator, profesionalak izan arren, txontxikirik ere ez eban hartzen karreretan parte hartzearren. Horretara, bizimodua aurrera ataratzeko bihurtu egin behar, eta entrenatzeko be derbor giti, eta guzti honeguz karreretan total kantautu parte hartzen eban, nahala berak esan gaztetan arin errekuperatzen dala bat.



Gaur egun sarritan entzun dogu «doping» kontua, eta esan be bai, «harek lehenagokiak horrek hartu izan balitxue...», baina eurarak be hartzen ei ebezen, ontxuenak batipat.

J. Laka



PALMARESA

(1946-1957)

7 GARAIPEN

- 1goa Bameo (1948)
- 1goa Euba (1949)
- 1goa Ermua (1950)
- 1goa G.P. Gernika (1950)
- 1goa Antzuola (1955)
- 1goa Pamplona - G.P. Navarra de Fondo (1955)
- 1goa 7. etapa Vta. Andalucía (1956)

46 aldiz lehenengo bost sailkatuetan

GIZABURUKO JAIKAK

Gizaburuko umeeek jaietan zelan pasetan ete dabean jakin nahian; bertako Paula, Koldobika eta Olatzegana joan gara galdetzen eta hirurei egin deutseeguz galdera bardinak; ikusi leitekeen moduan, ez daukete kezarik, hori bai, kontzerturen bat edo zeozer gehiago estimatuko leukee gaue-tarako. Ea bada kontuan hartzen dan hurrengorako nahi hori. Edozetan be, herriko jaietan ondo ipiltzen direla pentsatu leike.

1. Zelan pasetan dozu herriko jaietan?
2. Zer antolatzen da zure adinekoentzako? Ondo iruditzen jatzu?
3. Zerbait gehiago eskatuko zendoke zure herriko jaietarako?

Jentil Mar Arriaga

PAULA LENIZ, 11 urte

1. Oso ondo pasetan dot.
2. Bai, nahiko ondo pasetan dot eta nik uste dot umeeek ezin dabela kezatu.
3. Ez, nik uste dot honelako herri baten nahikoa direla ditugun aktibitateak.



OLATZ PEREZ, 12 urte

1. Ondo pasetan dogu eta asko dibertitzea gara.
2. Bai, ondo dagoz.
3. Oraindik ez, baliteke gero-ago zerbait eskatzea.



KOLDOBIKA LENIZ, 13 urte

1. Oso ondo eta ganera asko dibertitzen naiz.
2. Bai, oso ondo.
3. Bai, ganean kontzertu bat gehiago ipintea.

Aulestiko jubilatuek ondo baino hobeto ikasi dabre Benidormerako bidia. Aulestin hotz egiten dauanean berotan ibiltzen dira gure nagusiak. Ez dagoz gainera hutsik egitekotan. Hesiagaz izan genduan curon hango egonaldiei buruzko kontuak.

JUBILATUEN OPORRAK

Noiztik joaten zara zen Benidormera?

- Joan dan 9 urtetan. Hetero hutsik egin naik. Aulestia otan nintzezan Felisa Donatiereko egun elbaa legitu, eta berak kontentatuta joan ibiltzen zherengaz Benidormera.

Atraxo abadeak, Don José Félixek guraia hialtzea denaku unero joan, baina hiltzete elenago, ia zerbat joango garen jakiteko.

Zelan guporatzen dozu lehenengo urtes?

- Apurbar urteari, baina oso ondo.

Zergatik heti Benidormera?

- Obitura heri hartu dogulako eta Guk ez degu pentsatzen libereki degen eta esate harturako Palma de Maiorcaan aurren hotz danda, egun dan, baina Benidormen ez. Guk ohera topa gura elukiten dogu.

Ez zinatete Kubara edo joan?

- Zer egingu dogu guk Kuban bada? Kanariasen ezan nintzen Babiluaren bizi nintzela, hata, nahango dot Benidorm.

Kontaguzo Benidormen goizetik gaurera edo goizaldara arte zer egiten dozun?

- Guzteko 9 orlek inguruan jagnen gura eta 9 orlekana edo hantzen gura auzotze hartzen. Gero meza entzuten dogu. Haulik izaten eta pasoroen entzuten gura ezabatek arte. Ordu huletan hasaldia eta gero jokatu egiten dogu laurak arte. Larretan kalea hartu eta pasoroen psaien gura ostentze. Egun berebideak izaten ditogu, zaparac garbitzeak astirik bere ez deitu nintzen.

- Astan beru eguean eromera hant egoten da maitzet, eguea eta diondeketa.

Nango jendea ibiltzen da bertan halez bere?

- Ingleseak aske. Herriengo duna merkeago dagoenez hantrek edateo auzotzetzen dabe.

Inglesekin berbarik egiten dozu?

- Auzotzetzen eta ulake lekuan espetzen doguzan hant. Seintekin konpantzen gura halez bere. baina

ingelesez berba hartu k bere klasi doguz, eromera eta esketik aske esaten, hai behauk behan.

Inguru honetako jende aske egongo da, ezta?

- Bai, Gatik, Murgia, Uduliz, Zainotza eta inguruetakook.

Balagu alderik lehenengo eta kanpo-ko jendearen artean?

- Gura Inglesekin bai. Hantek musika be curon joer dante.

- Benidormek ak bertakak behar-ean egoten dira, katelegi, genda eta hulauekar, kulokarzen dira gazak.

Aske ligatzen da Benidormen?

- Bai, halez bai.

Hondartzan aerobic eta egiten dira, ezta?

- Gimnasia egiten litz kumita egiten dira, baina guk ez dogu egiten. Guk jokatzen egiten dogu.

Osasun alderik ligatzen dozu meji-riarik?

- Bai, bai. Martan eta askoz hobeto entzuten gura. Hant beru egiten dat eta heri hazimonteko emen.

- Titatileen eta otallean hant betza egoten da ilintzetan, baina ez gura egiten kanpoan.

Zer dimotsue semealabek Benidormera joaten zatezako?

- Oso mazik doguz. Orantze aprobe-razteko direnste.

Zelakoa da hango jaurria?

- Seta revico-ak dagoz. Nurbetas hartzen dan nahu datur beste. Jateko urte egoten da, tap koxka eta grek exkari egiten dogun audifosa. Postra hant ausentat egoten da.

Geldituko zinateke Benidormen bizi izaten?

- Udeak bilduritzen naiz. Erbarka ondo-guzti batzek egugari nintzen bertan da hantek esan ostent ulak ezin zala berotzen berotze, orik egat. Egutzez erant otzuan egiten zinatu, baina gura txarra zala.

Zenek hondartzara joaten zarte?

- Bai, egureko. Baina ni ez nize otzuan sartzen, naz bere ez otzuan hazimonteko.

ku hantentak egun eta. Ur heri ona da berzentzako, baina ez despostozentzetat. Hantentzen pasatzen ibiltzen gara.

- Ude aske egiten da, baina gura gura. Zainot-dioneketan gelaigo.

lanok eduka dozu arazorik eskal-dukak iratzeagatik?

- Bai, baina izan genduan, bei.

- Laberna bantzen sartu ginen hant-eko bost maldre. Alkatregaz entzeten egiten genduan beba. Mestadaren egun ginen luzate eta ez entzeten kosa-rik egiten, gura atzekik sartatuko. bant guri baina aurretik ataritzen esaten. Gutazko hantek zain genduzala esan esutan ordaraz karmenotari eta hantek "Maselras seis de la ELA" erantzen esutan. Bant gura eguna be ez zain isirik gurala da. "De la ELA" Si aqui tengo la metalleu, to-ta-to-hasta" esan esutan. Udean karmenotari alde-razo agindu eskitan eta gu beste laber-na hetera joan ginen. Hango karmenotari azalke genduzan genduzalasa eta hantek la polidari, zergatik ez genduzan esan. Baina guk ez genduan hantekara gura. Kapaz zain hant gura karmenotari sataeko eta.

Zer dago Benidormen ikusteko?

- Laxu polita da Benidorm. Urte alde bantzen egoten gara, baina alde zala-uean aserz be hant handiagu, dago jentek, zropa denda.

- Duna hotela dago hant, 180 eguru. Orantze egun dabe 40 pisu inguruko bat.

- Pasaleko aske nagoz dantak, kufitegiak...

- Gura hant hotel bantzena joaten gara eta ozagutu bere egiten gantze.

Hango bizimochu karna da?

- Er Benidormeko safetegak karmak dira, baina zropa denda ez hantent-berre.

- Mota ondan egiten dira. Jentekoa hant ez da karna, meakak eta bere mer-keak dira.

Animatuko zendake jendea karna joateko?

- Bai, Lako edent da eta gura alutza pasatzen, Jugu.

OGIGIÑAN

Lea inguruko baserriek etxetik urrian izan ohi dabe ogia erreteko labear; kasuik gehieneran eskrituratan, beste ondasunekin batera agertzen da izentatuta berea. Labea tente dagoen baserri batzuetan, gaur berez, oraindik labakosca egiten da, etxe-koen janari, benetazko elikadura preminaz baino gehiago ohitarari jarraitzeagatik eta etxean egindako ogia gozoagotzat dabelako; holantxerik, bada, beste prentetsio harik, ohiturari eusten deutece.

Ogia egiteko labean ondo berotu behar izaten da eta horretarako egurra erabili ohi da. Gariuruna, ur epela, gatza eta legamia edo lehadura behar izaten dira gailzat, astia eta jakituriarekin batera. Bakoitzetik behar dan beste harteta, gai guztiokin oroa egiten da, honen gatoraz igon arte itxain eta, sasoa helduzen danean, opul Inze edo beibil bihurtuko diren atalak banan-banan eratu; para ganean ipiri eta laba beroan sartu. Labakada ederra ataraten da handik ondo etorri danean, belintzat. Usaina orain dogu deskribidu, haina daki-zaenok gogoratu egingo dizae.

Tremesa izeneko beste opul bat bere egiten da lehenengo, beraz mehea eta hiribila izaten da, eta erreten dan eguncan bertan jateko izaten da.



Agustín Zubizarainen *Labean* liburutik ataratu

Zenbat lekutan egitea ete dan ogia jakin nahian ibili gura eta, gixienez ondoko lekue-
tan hitzen da labea, noizean bebia haino ez
baca bere.

Aulestin, Kastillou, Orrozpenean, Teilerian
egiten da. Munitibarren Garrant, eta Giza-
buruagan, Mendexan eta Amorettun ez ei da
ezein baserriean labakosurik egiten.

M. Unamuno



URKIA

Lat.: **Betula alba**
Gazt.: **Abedul**
Fr.: **Bouleau**
Ing.: **Birch**



1. ITXURA
 2. AMENTOAK
 3. AMENTO FRUKTIBEROA
 4. AZALA



Garaiera ertainekoa da urkia, gehien jota 20 metroko luzera hartzen dau eta forma konikopiramidala dau; enborra ez da oso lodia izaten eta adarreria horizontalean hazten jako. Azalak kolore gorritzat izaten dau arbola gaztea danean eta hazi ahala zurizkatu egiten da errauts kolorea hartuz.

Udabarrian loratzen da; uda eta udaguenaren hasieran heltzen jako frutua.

Silizezko substratua eta umeltasuna ditu gustoko eta ia Europa osoan eta Asiaren zati baten dago hedatuta. Euskal Herrian Kantauri alde guztian eta Pirinio mendietan aurkitu dagikegu.

Urkiaren zura ia zuria, garau finekoa, biguna eta iraupen laburrekoa da; papergintzarako, egur ikatza egiteko eta zurgintzan erabilen da gehien baten.

Urkiaren orriak propietate diureti-koak ditu eta sapak (savía) guntzurruneko zein puxikako inflamazioen kontrako propietateak.

Informazioa eta argazkiak ondoko liburutik atara ditugu *Guía de los árboles y arbustos de Euskal Herria*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 1990, 152-153 orrialdeak.